

• ASTERO GAIA •

Generoa festetan

Hiru ahalegin jaiak berdintzeko

Emakumeek eta gizonek berdinean parte hartzen ez duten festetako ekitaldiren bat esateko eskatuz gero, baietz hamarretik bederatzik Irungo eta Hondarribiko Alardeak aipatu. Gatazka gogorak, beroak dira horiek, oso agerikoak egin dira. Alabaina, erdi ezkutuan, oharkabean jai giroko mila ekitaldi egiten dira parekidetasuna kontuan hartu gabe, gizonek zein emakumeek txintik ere esan gabe.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

IZANPIRATA.INFO

Donostiako piraten abordajea.



Generoa festetan

ZERRENDA LUZEA egin genezake herriko jaietan emakume eta gizonen arteko parekitasuna errespetatzen ez den ekitaldiekin. Ez da herririk, festa giroan gizon-emakumeen arteko berdintasun erabatekoa lortu duenik, bistan da. Aisialdia, jai giroa, gizartearen ispilu txikia baino ez da, eta mendeetan ereindako desoreka ez da berdinduko San Joan batzuetatik bestera. Beraz, genero ikuspegia kon-tuan hartuz gero adibide txarrak nonahi ditugunez, berdintasun bidean ahalegin kontzientea egiten ari diren batzuen esperientzia jaso nahi izan dugu orriotan. Ez dira, horiek ere, berdintasunaren paradisu, baina landutakoak emaitzak izan ditu. Gipuzkoako hiru adibide kontatuko ditugu: Tolosako inauterietako danborradarena, Legazpiko Sustraiak Dantza Taldearena eta Donostiako Aste Nagusian hainbat ekitaldi antolatzen dituen Alde Zaharreko gazte asanbladarena.

Hiru adibideok gizarte antropologian espezializatuta dagoen Farapi enpresak eman dizkigu. Farapik Gipuzkoako Foru Aldundia-
rentzako ikerketa lana egin zuen, *Gipuzkoako lurralde historikoko jaiet buruzko ikerketa, generoaren ikuspegitik* izenekoa. Lan horretan, jaietarako adibide “onak” eta “txarrak” aztertu dituzte eta kultur teknikarien, festa antolatzailen eta parte-hartzaileen iritzi interesgarriak daude bilduta.

Galtzaundi, erregina eta damen ordez

Silbana Ostiza Goikoetxea Euskal Herritarrok-ekin zinegotzia izan zen 1999-2003 legegintzaldian Tolosan. Festen alorreko arduraduna izan zen, eta zenbait erabaki hartu zuen herrian antolatzen ziren hainbat ekitalditan, berdintasuna helburu. Zinegotzi izan baino lehen, herriko Emakumeen Asanbladan ibilia zen eta inauteri giroko hainbat

“Erregina-damak elkarteko afari batean aukeratzen zituzten, zinegotzia ere han izaten zen aukeraketan, pentsa nik zer egin behar nuen han!”

SILBANA OSTIZA, TOLOSAKO ZINEGOTZI OHIA

1999-2003 legegintzaldian Tolosako inauterietako erregina eta damen karroza kendu zen. Haren ordez Galtzaundi pertsonaia ateratzen hasi zen.

festa ekitaldi ez zuen gustuko. Gertu-gertutik jarraitu du, beraz, Ostizak berdintasunaren ikuspegitik inauterietako hainbat ekitaldik izan duten bilakaera, eta berak ezagututakoa kontatu digu.

Inauteri bete-betean, Ostegun Gizen egunean, Tolosako elkarte batek danborrada antolatzen zuen. Gizonek baino ez zuten parte hartzen eta emakumeek ez zuten aldarrikatu parte hartzea. Larunbat gaua berriz,

huts samarra geratzen omen zen eta hainbat elkartek pentsatu zuen, Donostiako *La Bella Easoren* tankeran, danborrada eta erregina-damen ekitaldia antolatzea. Danborradak hiru zati zituen: lehenengoan “herriko danborrada” zihoan, gizonen osatua; bigarrenengoan Arco Iris elkar-
tea joaten zen, gizonen elkar-

tea zen, baina gizon-emakumeek jotzen zuten danborra; hirugarrenengoan auzoko Berazubi elkarteak desfilatzen zuen, gizon-emakumez osatua. Danborrada ofizialtzat, ordea, lehenengo zuten, alegia, gizonena. Danborradaren ondoren erregina-damak zetozen karrozan. Elkar-teetako gizonen aukeratzen zituzten bai erregina-damak eta baita danborradako taldeekin joaten ziren kantinerak ere. Erregina-damak karrozan zihoazen, goian, eta kalean, ia mespretxuz hartuak, kantinerak. Hori horrela zen garaian Silbana Ostiza Emakumeen Asanbladan zebilen eta gogoan du karroza ateratzen zeneko garaia: “Karrozaren aurka urtero

TOLOSAKO UDAL ARTXIBOA



TOLOSAKO UDAL ARTXIBOA

kanpaina egiten genuen, jende asko aurka jartzen zitzaigun eta iraindu egiten gintuzten. Esaten ziguten itsusiak, txikiak, gizenak... ginela eta inbidia genuela. Bereziki emakumeak izaten ziren. Sufritu egiten genuen, baina gai horri heldu beharra zegoen”.

1999. urtean hasi zen zinegotzi lanean Ostiza, eta alderdiaren filosofiarekin bat eginez, festa batzordean adierazi zuen hurrengo inauterietan festa hura Udalak ez zuela, ez diruz, ez azpiegituraz, ez inola ere, lagunduko, eta ordezeko festaren bat sortzen ahaleginduko zirela. “Erregina-damak elkar-teko afari batean aukeratzen zituzten, zinegotzia ere han izaten zen aukeraketan, pentsa nik zer egin behar nuen han!”, dio. Festa batzordean gehienak gizonak ziren eta eztabaida sortu zen Udalaren erabakiarekin. Batzuek onartu zuten eta beste batzuek ez. Urtebeteko luzamendua eskatu zuten batzordekideek eta Udalak urte hori probestu zuen ordezeko festa antolatzeko.

Udalak bi gauza egin zituen hurrengo urtean: batetik, danborrada ofiziala deitzen zitzaien hartan emakumeek ere parte hartzea bideratu, eta bestetik, erregina-dama-kantinera figurak ezabatu. Ostizak oso gogoan du Karlos Muñoa danbor nagusiaren jarrera, kargu garrantzitsua izanik hasierahasieratik aldaketaren alde egin zuelako. Erreginarekin lekua Galtzaundi pertsonaiak hartu zuen eta damen tokian ziripotak, txantxoak, joaldunak... agertu ziren.

EHk legegintzaldia bukatu arren, danborradak –Galtzaundiren karrozarik ez dago orainbere horretan jarraitzen du, nahiz eta Ostizaren ustez indarra galdu duen: “Agiñ alderdi berriak pentsatu zuen festa berria errotuta zegoela eta ahalegin berezirik egin beharrik ez zegoela. Ez zen hala izan”. Galdetu diogu ea nostalgikoak badiren; “tarteka badira esaten dutenak danborradak zentzua

Arabako kuadrilla arteko
lehenengo
BERTSO TXAPELKETA
2010

3. FINALERDIA

Apirilak 25, igandea, 17:30etan, Amurrioko Antzokian

AIARALDEA
VS
ARAMAIO

Antolatzaila Babesleak:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GIZARTE EKINTZA
Obra Social
Caja Vital Vital Kutxa

Laguntzailea

argia



IZANPIRATA.INFO

Itsasontzian ikusten dena Ezkila pirata da. XVII. mendeko Pedro Agirre kortsario donostiarra hartu zuten oinarri Ezkila sortzeko, baina pirata hori emakumea da.

galdu zuela erregina eta damak kendu zirenean, eta emakume askok esaten du hori”. Beraz, askok onartu onartu dute aldaketa, baina aldaketa eragin duen filosofia, oinarria ez dute barneratu.

Tolosako San Joanetako alardean, eskopetarietan aldaketa naturalagoa izan zela uste du Ostizak. Denak gizonak ziren hasieran eta urte batetik bestera emakume bakan batzuk agertu ziren. Urtean-urtean gero eta emakume gehiago hasi ziren, “naturaltasunez, herrian inork ez zuen ezer esan”.

Ostizak Tolosako Udalean izan duen esperientzia baliatuz eta inguruko herrietan zer gertatu den ikusita –Hondarribia eta Irun ditu gogoan– argi dauka: “Udalak garbi baldin badauka zer nahi duen, erabakia hartuko du eta kito arazok. Aldiz, ostrukarena egiten baldin badu... Dena dela, beti pentsatu izan dut Tolosa herri berezia dela, onerako eta txarrerako, ez dela sutzuegia. Ados ez dagoenak egunkarian eskutitza idatziko du, baina ez dira zure aurrean jarriko”.

Ezkila pirata feminista

Aurten zortzigarren aldiz abiatuko du abordajea Ezkila piratak Donostiako Santa Klara uhartetik. Duela zortzi urte, Alde Zaharreko gazte asanbladari otu zitzaion abordajea egitea. XVII. mendeko Pedro Agirre kortsario donostiarra hartu zuten oinarri Ezkila kapitaina sortzeko. Pedro Agirre itsasontziak abordatzen ibiltzen zen eta Robin Hooden antzekoa zela esan daiteke. Donostiar kortsarioak *Campañario* zuen ezizena eta hortik dator kio Ezkila izena Donostiako kaian Aste Nagusian ageri den pirataria. Pedro Agirre ez bezala, Ezkila kapitaina emakumea da, feminista, euskalduna, eta ama lurra, eta batik bat itsasoa maite dituen. Abordajearen koordinatzaileak emakumeak dira, Amaia Jorge eta Aratz Trecet.

Aste Nagusiko Ezkila kapitaina emakumea da, feminista, euskalduna, eta ama lurra, eta batik bat itsasoa maite dituen. Abordajearen koordinatzaileak emakumeak dira

Aste Nagusiko astelehenetan antolatzen hasi ziren *Abordaja* festarako hiru ezaugarri hartu zituzten kontuan Alde Zaharreko gazteek: jai eredu euskalduna, parekidea eta parte-hartzailea izatea. Hiru ardatz horiek oinarri, ondoren antolatu dituzten gainerako jai ekitaldietan ere eredu bera gauzatu dute. Jaietan gizon eta emakumeen parte-hartzea bultzatzeko Bilgune Feministaren laguntza izan dute. Haiekin hitz egin, jasotakoa gazteen artean eztabaidatu eta Bilguneak eskaintako protokolo modukoak gauzatzeko saiatzen dira. Haritz Barela antolatzaileetakoak azaldu digu ez dela erraza protokoloa ehuneko ehun betetzea, baina bai funtsezkoa gogoan izatea parte-hartzeak berdina izan behar duela emakume zein gizonentzat. Esate baterako, Aste Nagusian zehar egiten dituzten ekitaldi guztiak ordaindu ahal izateko bi egunetan kontzertuak antolatzen dituzte eta kosta egiten zaie oholtzan parekidetasuna betetzea. Iaz, adibidez, Piperrak, Parabellum, Esne Beltza, Barricada eta Des-kontrol izan ziren. Talde guztiak gizonen osatuta daude. Barelak dio jende asko behar dutela kontzertuan dirua biltzeko, eta Berri Txarrak-ek eta Sorkunek ez dutela kopuru bera erakartzen esaterako. Amaia Jorgeren ustez, musikari emakumeak gutxiago dira, eta beraz, aukera murriztagoa da.

Kontzertuez gain, umeen eguna, koadrilen eguna, erromeria eta beste antolatzen dituzte. Jokoetan koadrilak aritzeko adibidez, baldintza bat dute, mistoak izatea. Dena dela, antolatzaileek diotenez, gazteei natural ateratzen zaie talde mistoak egitea, eta gainera, jokotan mutilak baino neskek gehiago dira. Barelak zalantza aurpegia jarri du, “agian holako jokoetarako lotsa sentitzen dugu mutilok... Ez dakit”. Zaku lasterketak, sokatira, uretako jolasak... egiten dituzte.

Gustura sumatu ditugu hiru antolatzaileak, jai parekideak antolatzeko egindako ahaleginak fruituak eman dituelako, baina ez daude geldirik. Ekitaldi berriak antolatzeko pentsatu egin behar da ea nola hurbilduko dituzten baldintza berberetan mutilak eta neskek. Aratz Trecet futbito txapelketarekin akordatu da: “Askotan egiten dugun akatsa da, parekidetasunaren izenean, neskek edozein ekintzatan parte hartzera bultzatzea, hala izan behar balu bezala beti. Eta azkenean, beste alternatiba bat bilatu ezean, non bai neskek eta bai mutilek naturalki hartzen duten parte, helburu jartzen dugu emakumeon parte-hartzea, ‘bai ala bai’. Askotan, ez dakigu emakumeoi, ‘jaso dugun heziketatik at’ zer gustatzen zaigun benetan. Eta hor, badaukagu zer ikasi, bai mutilek, eta bai neskek”. ■

Jon Dorronsoro, dantzaria

“Entseguetara datozen gehienak neskak dira, gero mutilek atera behar al dute plazara?”

Jon Dorronsorok 34 urte daramatza dantzan Legazpiko Sustraiak Dantza Taldean. Beti ezagutu ditu taldean neska gehiago mutilak baino. Sustraiak du izena dantza taldeak, baina Dorronsoro ez da erroak betikotzearen aldekoa, izaera mantenduz garaian garairako aldaketak egin behar direla dio; esate baterako, neska-mutilak gogoaren eta beharraren arabera dantzetan tartekatzea.

Neskak eta mutilak nahasian dabilta zuen taldean.

Entseguetara datozen gehienak neskak dira, beraiek hartzen dute parte gehien eta gero mutilek atera behar al dute plazara? Entseguetan ordu gehiagor aritu eta jendaurrean gutxi azaltzeak ez dauka zentzurik. Neskak aterako dira, adibidez, mutilak baino hobek direlako, edo mutil gutxi dagoelako eta neska asko, edo neskek beraiek nahi dutelako.

Esate baterako, mutilen dantzatzat hartu ditugun horietan neskak aritzea taldean erraz oinarritzen al da?

Bai. Guk ez daukagu inolako arazorik, nik garbi daukat, entseguetan duguna erakustea gustatzen zaigu eta entseguetan neskak dira gehienago. Igoal akatsa gurea izan da, “dantza hau mutilena da, beste hau neskena” esan izan dugu, eta gero entseguetan denok nahastuta ibiltzen gara, neska eta mutil kopuruaren arabera. Entseguetakoa erakutsi beharko genuke jendaurrean. Gainera, gaur egun nesken dantzatzat hartzen direnak hasieran mutilek baino ez zituzten dantzatzat: zintadantza, makil txikiak...

Eta ikusleek nola erreazionatzen dute?

Izan daiteke erreazioaren bat izatea: “Baina hauek zergatik egiten dute horrela?”, baina guri ez zaigu ezer iritsi.

Nolako nahasketak egin izan dituzue?

Ezpata dantza “mutilen” dantza da. XX. mendeko 60ko hamarkadan, Legazpin, aurrealdean neskak atera ziren, mutil gehiago ez zegoelako. Beharrak eraginda neskek ezpata dantza egin zuten eta gaur egun ere taldeak ez dauka inolako arazorik neskak aritzeko. Neskek beraiek dute arazo gehiago. Iaz ere esan genien: “Egin zuek ezpata dan-

tza” eta ez ziren ausartu, edo ez dakit zer... Sorgin dantza, Antzuolan, mutilek egiten dute, beraiek neska eta mutil rola beteta. Gu batzuetan mutilak neskaz jantzita eta neskek mutilez jantzita ateratzen gara. Ikuskizunaren arabera, nahasketak egin ditzakezu.

Lehen gauzak nola egiten ziren horri garrantzia ematen zaio, bada.

Baina lehen, dantza taldean zebiltzanek ere aldaketak egingo zituzten, hamar urtetik hamar urtera igoal... Sagar dantza oso fina da orain, feminizatua dago. Bada, dantza hori

SUSTRAIAK D. T.



Baztanen mutilek egiten dute, ez dut uste koreografia hori finfina denik. Beste adibide bat emango dizut: Legazpin, maiatzaren 3 batean hanka lehenengo biran altxa beharrean bigarrenetik aurrera jasotzea erabaki genuen, uste dut beterano samarrak ginela eta gutxi entseatuak. Bideoan grabatu zen dantza hura eta urte batzuk geroago Irunera joan ginen

haiei ezpata dantza erakustera. Gure bideoarekin ikasia zuten dantza. Lehenengo biran *fin!* hanka altxa genuen, eta haiek: “Ez, ez, hori bigarren biran da!”, eta guk: “Bideoan bai... gaur ez...”. Horregatik diot, tradizioa zer den...

Edozer da balekoa orduan.

Dantza bakoitzak du bere izaera eta dantzari hori irudikatzen dute, beste kontu bat da dantzaria neska ala mutila den. Bestela esanda, eskopetaria neska ala mutila izan berdin zaizu, tiroa ondo botatzen baldin badu. Beste kontu bat da esatea nola antimilitaristak garen eskopetaren orde larrosa eramango dugu, edo Donostiako danborradan batukadarekin aterako gara. Horretarako beste festa bat antolatu, zeren danborrada edo alardea ez da hori.

Txapelketetan banatuta aritzen dira neskak eta mutilak.

Mutilak aurreku txapelketan lehiatzen dira eta neskak soinu zahar txapelketan. Gerta daiteke egunen batean txapelketa bakarra egitea, alegia, aurreku eta soinu zaharren txapelketa. Dantza solte txapelketetan bikote mistoez gain, bi mutilen eta bi nesken bikoteak onartzen dira. ■